

ITSASADARRAREN «ISLADAK»

Ertzetako lanbideen 40 begirada Portugaleten, tokiko memoriari emanak

📁 JENDARTEA / Nerea GOTI

Nerbioiko Itsasadarrak haren ertzetan sortutako lanbideen erretratuak ditu ikusgai azaroaren 9ra arte, Portugaleten. Bizkaia Zubiko terrazetan dago lanaren zati bat, 15 erretratu daude guztira bertan. Beste 25eko bilduma bat, handik metro batzuetara, itsasadarraren ertzetako “kriatura” ere baden Rialia industriaren museoan ikus daitezke. Gallartara joango dira guztiak ondoren, Euskal Herriko Meatzaritzaren Museora; lanaren muinean dauden itsasadarren erroekin lotura zuzena duen

beste espazio batera, beraz. Sergio Monedero (Bilbo, 1974) argazkilariarena da lana, bost urtetako prozesu sakon baten emaitza dena. Zuri-beltzeko 40 argazkik osatzen dute “Isladak”

Sergio Monedero
erakusketaren egilea,
Portugaleten.
Aritz LOIOLA | FOKU

titulupean argia ikusi duen bilduma, eta ez dira guztiak, askoz gehiago utzi ditu proiektuak. Argia ikusi duten horiek ikusleari begietara begiratzen diote, zuzenean, aurrean dagoena in-

terpelatuko balute bezala. Indar, mezu eta intentsitate ezberdinetako begiradek informazio handia ematen dute, eskuak jartzeko moduak hitz egiten duen bezala. Bakoitzaren atzean, istorio bat dago, elkarrizketa bat, eta ikuspegi kolektiboago batetik, oroimen ariketa bat ere badira.

Txikitan hasi zen argazkilartzara hurbiltzen Sergio Monedero, kamera analogiko arrunt horietako batekin bizitzaren eszena arrunt horiek argazki bilakatzen zituen aita zaletuaren ondoan; argazki-filma errebelatzera eraman eta bueltan zetozen paperezko emaitza haien iritsiera ospatuz. Zaletasun hu-





ra hazten joan zen, eta oso era autodidakta batean hasieran, esperientzian sortutako akats-tatik eta asmatutakoetatik ikas-tekoak izan ziren lehen urratsak. Gerora, ikastaro eta formazio saio ezberdinak etorri ziren, eta ondoren, konstante bat izan da «pertsonek» argazkilaritzarekiko grina.

«Gogokoen dudak generoa da», onartu du. Bide horretan, «Boxeolariak» eta «Errugbilaria-riak» bezalako lanak daude si-natu dituen azken proiektuen artean. Industria-osteko paisaiak ere izan dira inspirazio iturri. Bien arteko nolabaiteko lotura bat dago, biek islatzen dute iragana, nortasuna, erroak...

Boxeoaren eta errugbiaren mundura egindako introspekzio fotografiko horietatik hona, kirol pertsonen psikea, senti-menduak islatzea egon da beti erdigunean. Pertsonen alde in-

timoena erakutsi nahi izate ho-ri azken erakusketa honetan ere badago, eta ondoan, beste gal-dera batzuei erantzuteko nahia ere bai. Lana garatzeko proze-dura aparteko kapitulu bat da istorio honetan.

IRUDIEN PROTAGONISTAK

«Isladak» erakusketak ikusgai dituen irudien atzean kolektibo ugari daude, itsasadarraren eguneroko bizitzaren parte di-renak, kirola, kultura, musika edota itsasoari lotutako hainbat lanbide eta jarduera. Sardina saltzaileak, aktoreak, musikariak, El Saltillo eskifaiaiko tripu-lazioa, portuko gidariak, garbi-tzaileak eta harri zultatzaileak daude, besteak beste, irudi ho-rien atzeko kolektiboaren artean. Baita ekintzaileak ere. «Etorki-zuna esku sendoeekin eta begi-rada garbiarekin eraikitzen bai-ta», dio erretratu batek, eta zera gehitu du: «Ahalduntzea eraba-

«Isladak» erakusketa
Portugaleteko
terrazetan, Bizkaiko
Zubian.
Aritz LOIOLA | FOKU

kitzea, parte hartzea eta lider-goia hartzea da».

Sona handiko aurpegiak aur-kituko ditu bisitariak ikusgai dauden argazkien artean. Bes-teak beste, Itziar Ituño aktorea, Andoni Goikoetxea Athleticeko jokalaria ohia edota Niko Vaz-quez MCD eta Motorsex ban-den sortzaile eta «Make Bilbao Grey Again» proiektuaren egi-lea ageri dira.

Irudiekin kontatu nahi due-naz galdetuta, Monederok argi dio itsasadarraren inguruko ideia hori barruan eraman duen zerbait izan dela: «Marka-tu gaitu sozialki, kulturalki, po-litikoki... eta hori da buruan izan dudak zerbait, hori izan da haria».

Aldarrikapena ere bada lana-ren arimaren zati bat. «Nor ga-ra, nondik gatoz eta nora goaz» pentsamendutik sortzen den zerbait dago oinarrian, dioe-nez. «Nortzuk izan ginen eta

zergatik garen garenok», edo beste era batera esanda, leku baten memoria eta izaera osa-tzen duten kontakizunen errei-bindikazioa, «beste pertsona batzuk egon ziren borroka ez-berdinetan, beste pertsona bat-zuek eraman zuten euskara aurrera, eta beste mila gauza. Haien omenaldi bat ere bada». «Gu bagara haiek izan zirelako, eta izango gara. Herri honek demostratu du erresilientzia daukala eta izango duela. Asko-tan, dena gure kontra egon arren, ekaitzak eta abar, lortuko dugula sinisten dugu, eta hori errebindikazio bat da, horretaz ari naiz hitz egiten, memoria historikoa da, ez dugu ahaz-ten», nabarmendu du.

Irudiek kontatzen dutena da-go, eta ondoan, errelato horre-taraino heltzeko eramandako prozedura, erabateko garran-tzia duena erretratuak sortzea bezain intimoa den genero ba-

tean murgiltzeko. Guztira, 250 lagunek hartu dute parte bost urtetan zehar garatu duen proiektuan, hortik irudi bakoi-tzean agertzen diren urte ez-berdinak. Kopuru handiak atentzioa ematen du, baina are deigarriagoa da hartutako bi-dea. Oso arlo eta lan eremu ez-berdinetako 250 lagun biltzen dituen egitasmo bat berez gi-zartearen aniztasunaren nola-baiteko ispilua ere bada, baina horra heltzeko protagonista ba-koitzarekin jarraitutako proze-dura ere bada.

«Batzuetan galdetzen didate zelan egin dudak kontaktua pertsona horiekin. Kasu ba-tzuetan itsasadarretik eginda-ko paseo baten emaitza izan da, atentzioa eman didan pertsona batekin topo egin dudanean... Haiengana hurbildu eta azaldu diet zer egiteko saiakeran nabi-len, ea proiektuan parte hartze-ko prest egongo lirartekeen. Ez da erraza izaten, baina esan behar dut gehien-gehienetan onartu dutela, eta uste dut hori mutur handiarekin lortzen dela, baina egia esanda eta batez ere zintzotasunarekin lortzen dela», azaldu du Monederok.

Lehen baiezkoaren atzetik, begirada horiek lortzeko kon-plizitatea izan da gako nagusia, eta horri eskatzen duen dedikazioa eskaini dio. «Per-sona bakoitzarekin gutxienez ordubetez egon naiz hitz egi-ten, euren bizitza konta zieza-daten, nortzuk diren...», dio abantarrak, eta gaineratu du dedikazio hori dela, bere us-tez, sakoneko nortasun horre-tara heltzeko modu bakarra. Protagonistak aukeratuko ez lukeen irudia heldu da plazara akaso, baina egilearen esane-tan, alde emozionalari bizka-rra eman behar izan dio une batez edizioa egiteko orduan, esanguratsuak diren eta duten



Goiko irudian, Ibon Pelaez eta Niko Vazquez haien erretratuaren aurrean. Ezkerretara, Bizkaiko Zubiko terrazetan dagoen erakusketaren zati bat. Aritz LOIOLA | FOKU

indar bereziagatik erakusketa-
ra heldu diren argazkiak hau-
tatzeko.

Ariketak, gainera, beste emaitza bat izan du: «Kontu-ratu nintzen kontatzen zizki-daten esperientzia horiek ba-lioa zutela, ezin ziren galdu. Pentsatu nuen elkarrizketa horiek grabatu zitezkeela, eta egin eta YouTubeen eskegi ni-

Erretratuena da Sergio Monederok betidanik maite duen argazkilaritza-generoa. Zuri-beltzean, begiradek, eskuek eta jarrerek islatzen duten indarrean jarri du fokua

Oroimen historikotik eta «erreibindikaziotik» asko duen lana dela adierazi du egileak... «Izan zirelako gara» esateko modu bat, «gugan» arrastoa utzi duten borroka askoren isla

tuen». Beste ekarpen bat, oroimenaren ikuspuntutik.

Sakonera handiko ibilbide horretaz asko dakien lagun bat izan du ondoan Monederok, Mavi Garcia Zamalloa. Haren erretratua ikus daiteke Bizkaia Zubian. Lanaren aurrean, kon-tatu du ez dela erraza erretratu baterako pausatu behar iza-tea, baina prozesua erraza egiten duela Monederok, pentsa dezakezula luzatzen ari zarela, baina elkarrizketa horretan gai batetik bestera pasatzen zarela «konturatu gabe», eta horrek solasaldian aurrez aurre dauden bi per-sonen artean sortzen den lo-turarekin duela zerikusia, kontatzeko zerbait izan eta entzuna izatearen arteko ore-ka horretan mugitzen diren uneak. Ezabatzen doaz ten-tzioak, lotsak, beldurrak... eta gainera itsasadarra zegoen proiektuaren erdian, eta etxeko sustraietarainoko lo-tura estua izanik, «ohorea» izan da berarentzat itsasada-rraz hitz egitea: «Aita gallar-tarra nuen, harri zulatzailea aitite, aita meategian egin zuen lan... eta horrela ema-ten diot hasiera nire kontaki-zunari».

Zioenez, seme-alaben koli-koen paseoen lekuko izan da itsasadarra, lagunaren artekoe-na... baina «ez da paisaia soi-lik, munduko gainerakoarekin konektatu gaitu». Gogoratu zuen bertan itsasoratu zela euskal izenik izan ezin zuen itsasontzi bat, portura heltze-ko «aukera gehiago izateko horrela; gerratik ihesi milaka haur irten zirela handik 1937an...», eta gogoeta egin du Mondederok: «Zenbat elka-rrizketa, gertaera historiko... ikusi ditu leku honek, lekuko izan den guztiaz hitz egingo baligu...».